

ADUNA

Giro ezin hobia Adunan, asteburuan

13.08.13 - 00:10 - NÚÑEZ | ADUNA

Adunako Andre Mariaren Jasokundeko jaiak osteguenan hasiko dira. Egun horretan, Amabirjin eguna izanik, goizeko 07:00etan Diana izango da. 11:00etan berriz, Meza nagusia izango da. Ondoren, 12:00, Axeri dantzako kideek botako dute txupinazoa. Gero, umeen dantza eta Axeri dantza iragarrita dago.

Arratsaldean berriz, 18:00etan, Herri kirolak izango dira eta 22:30ean, Ingo al deu? taldea.

Bestalde, festa aurreko asteburuan jai giroa izan zen nagusi Adunan. Igandean, sagardo dastaketa egin zen plazan. Bertan, Aburuza, Zabala, Petritegi, Satxota, Larrarte, eta abar, sagardoak dastatzekoa ukera izan zen. Jende ugari hurbildu zen bertara eta sagardoaz gain, txorizo pintxoak izan ziren. 150 pertsona baino gehiago bildu ziren pilotalekura haragi gisatua eta txekor errea dastatzeko.

Aipagarria da, Adunako jaietako lehenengo asteburuan kirola izan dela nagusi. Izan ere, larunbatean, Trans-Ernio Pelota Txapelketako finalak jokatu ziren. Adunako pilotari gazteen arteko partiduekin hasi zen jaialdia. Txapelketaz kanpoko partidua izan zen eta Inar Iparragirrek eta Lander Zabalak lakes Ormaetxearen eta Eneko Lizerazuren aurka jokatu zuten, 12-16 emaitzarekin.

Trans-Ernio finalak

Ondoren, Trans-Ernio garraio kooperatibak babestutako txapelketako lau finalak jokatu ziren. Benjamin mailan, Gorka Ugartemendiak eta Unai Lizarribarrek 10-16 galdu zuten Iker Egiguren eta Josu Labakaren aurka. Alebin mailan, Unai Alberdik eta Mikel Unanuek 16-5 irabazi zuten Manex Albenizen eta Noah Unanueren aurka. Infantil mailan, Yerai Arrutik eta Enaitz Aizpitartek 18-8 irabazi zuten Iker Arandia eta Oier Zubeldiaren aurka eta, kadete mailan, Amets Aranzeta eta Unai Salegik 22-11 galdu zuten Ander Udapilletaren eta Beñat Belokiren aurka.

Adunako frontoia guraso, senide eta herritarrez bete zen finalak ikusteko. Guztiek txalo zaparradak eskaini zizkieten finalistei tanto bakoitzean, baita partidu amaieran eta sari banaketan ere. Iñaki Lizasok, Adunako pelota eskolako irakasleak, eta Aitorrek banatu zituzten. Aurten Trans-Ernio Txapelketak 10. urteurrena bete du eta maila oneneko haur eta gazteek parte hartu dute bertan. Guztira 39 bikotek parte hartu dute Gipuzkoa osotik etorritakoak, besteak beste, Zizurkildik, Asteasutik, Altzotik, Adunatik, Andoaindik, eta abar.

TAGS RELACIONADOS

giro, ezin, hobia, adunan, asteburuan

Publicidad



¿Un iPhone nuevo por 17€?

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco
www.megabargains24.com



Hotel 4* en la Playa

Compara precios de hoteles entre más de 150 webs, encuentra tu hotel ideal y ahorra.
www.trivago.es



Concurso GP F1

Burn y el equipo Lotus F1 Team te llevan a los Grandes Premios.
¡Consigue tu viaje!
www.burn.es/concursoGP



Tu Seguro Moto desde 114€

No esperes más. Consigue los mejores precios en tu Seguro de Moto con Asistencia en Viaje
www.fenixdirecto.com

Para poder comentar debes estar [registrado](#)Iniciar sesión con  

Regístrate



Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Mostrando 0 comentarios

Ordenar por los más recientes primero

Suscríbete por e-mail [RSS](#)